

Burbuilak eta musikaz jantzitako lau urtaroak, haurrei zuzendutako bi antzezlanen protagonistak

Biterin, 18:00etan izango da gaur 'Burbuilak' emanaldia. Sarrerak 3 euro balio ditu. Salgai daude urtarrilaren 2ko emanaldikoak ere.

HERNANI HAUR ANTZERKIA

Haurrei zuzendutako antzezlanekin gozatzeko aukera izango da Biterin, urtea bukatu eta berria hasteko. Gaur arratsaldeko 18:00etan ikusi ahal izango da aurrenekoa: *7 burbujas* konpainiaren *Burbuilak*.

Hurrengo, urtarrilaren 2rako antolatuta da: *Teatro Che y*

Moche konpainiaren *Lau urtaroak: zein ziren eta zer dira*.

Sarrerak salgai, bi emanaldietarako

Gaurko emanaldia 3 urtetik gorako haurrei zuzendutakoa izango da, eta 3 eurotan daude sarrerak salgai, Biterin bertan.

Testurik gabeko antzezlanaren eskainiko dute Esther Muñoz

eta Israel Muñoz antzezleek, Isabel Muñozen zuzendaritzapean. Xaboi burbuilekin egindako komedia eroa da prestatu dutena, eta publikoa egingo dute protagonista. Burbuilek irudimena eta ametsak pizteko balioko dute, magia eta umorez beteta, eta horiekin gozatzeko gonbidapena luzatuko diete ikus-entzuleei.

Urtarrilaren 2ko emanaldia, bestalde, 6 urtetik gorako haurrei zuzendutakoa izango da, 65 minutukoa, eta musikaz lagundutakoa, eta sarrerak sal-

gai daude emanaldi honetarako ere, 3 eurotan, Biterin.

Kasu honetan, Teresa Plyvkaren zuzendaritzapean ariko dira aldi berean antzezle eta musikari lanak egingo dituzten Fernando Lleida, Elva Trullén, Tereza Polyvka, Kike Lera, Fran Gazol eta Joaquín Murillo. Vi-valdiren *Lau Urtaroak* musika unibertsaletik sortutako komedia bat eskainiko dute. Sokazko musika tresnak jotzen daukaten abilezia erakutsiko dute, ikusizun harrigarri eta dibertigarri baten bueltan. **K**



Puzgarri eta ohe elastikoak, 2 egunez

ASTIGARRAGA ASTIKO

Atzo haur parkearekin gozatzeko aukera izan zuten gazte-txoek. Gaur eta bihar, berriz, Astiko merkatarien elkartearen eskutik, ohe elastikoak eta puzgarriak jarriko dira Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberria plazetan, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:30etara.

Mahai-jolasak, frontoian

EREÑOTZU AISIALDIA

Gabonetako oporrekin gozaten jarraitzeko, mahai-jolasetan aritzeko aukera izango da gaur frontoian, 16:30etatik aurrera.

Jantoki-soziala irekita, ostiralez

HERNANI KONTRAKANTXA

Hileko azken ostirala denez, jantoki-soziala irekiko du gaur ere Kontrakantxa Gaztetxeak, 21:00etan. Horrez gain, urtarrilaren 31n urtero bezala mus txapelketa egingo dela ere jakinarazi dute, 16:00etatik aurrera. Bikoteko 5 euro ordaindu beharko dira, eta sariak izango dira aurreneko hiruentzat.

Futbol saio irekia, Zarkumendegin

ASTIGARRAGA MUNDARRO

2012an jaiotako haurrei zuzendutako futbol saio irekia antolatuta du gaurko Mundarrok, 17:00etan Zarkumendegin.

Komiki tailerrean, izena

HERNANI AISIALDIA

Abenduaren 30 eta 31n eta urtarrilaren 2an komiki tailerra emango du Axpik, 11:00etan, Udal Liburutegian. Izena eman behar da aurretik.

Amatxiren istorio magikoak gitarra hots goxoz lagunduta, abenduko ekintzak bukatzen hasteko

Eskolako jangelan ariko dira gaur, arratsaldeko 17:00etan hasita, Amaia Elizagoien eta Irati Celestino.

GOIZUETA KULTUR AGENDA

Ipuin-kontaketa saio berezia emanen dute gaur Amaia Elizagoien eta Irati Celestinok. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera egingen dute emanaldia: *Amonaren istorioak* ipuinak kontatuko ditu Elizagoienek, eta Celestinok gitarrak lagunduko dio.

Amonarekin topo egin arteko bidaia

Kontaketa saioko ardatz izanen dira amonak, amatxik, bisitatzeten dituen herrietatik bidaltzen dituen gutunak. Egun batean, ordea, gutunak jasotzeari utziko diote bilobek, eta horrexegatik, gitarra hartu eta bidaiatzeari ekinen diote.

Bidaia horietan laguntzeko gonbitea luzatuko diete entzuleei, amonarekin topo egin arte.



Amaia Elizagoienek kontatutako istorioak lagunduko ditu Irati Celestinok gitarrak.

Hori izanen baitute aitzaki, herri-herri ibiltzeko.

Pelikula eta musa, bukatzeko
Abenduko kultur agenda osatzeko, beste emanaldi batekin gozatzeko aukera izanen da oraindik. Hilaren 30ean, dato-

ren astlehenean, *SuperTramp* filma ikusi ahal izanen da, arratsaldeko 18:00etan hasita, jangelan. Umeei zuzendutako saioa izanen da.

Urteko azken ekitaldia antolatuta duena, bestalde, Umore Ona elkartearen izan da. Mus

Txapelketa azkarra antolatuta du urtarrilaren 31 arratsalderako: 16:00etan hasita jokatu da Umore Ona elkartearen bertan, eta herritar nahiz kanpokoei irekitakoa izanen dela gogorazi dute, gonbidapena bailara osoari zabalduz. **K**

PROKOLOR ZENTRUA MARGOAK
Landaribar, s.l.

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00

LARUNGATETAN
9:00 - 13:00

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOLKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriarako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fatxadien preskripzio teknikoak (10 urteko garantia)
Aholkularitza teknikoak
Kolorre berdintzeetan espezialistak
Mota guztietako zoruaren salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatik gora paper pintatuetan
Biniloak
Sprayen ontziratzea
Etxez ebeko zerbitzua

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

Catalana Occidente
Aseguruak

BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

GAUR Goizean laino dezente agertu daitezke oraindik, baina eguzkia nagusituko da pixkanaka. Tenperatura, hala ere, ez du eragin handirik izango. **Min.6° / Max.15°**

BIHAR Antzeko giroa espero da. Goizean berriro lainoak agertu badaitezke ere, eguzkia izango da, orokorrean, nagusi, eta tenperatura ere berdintsua izango da. **Min.7° / Max.14°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: Aldabe Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBERNA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



«Konponbideari ekin eta kaleratzeak martxan jartzeko garaia da»

Etxerategi eta Sarek antolatuta, ekintza bereziak egingo dira gaurtik urtarrilera, hainbat herritan.

ASTIGARRAGA-HERNANI PRESOKA

Sarek eta Etxerategi elkarlanean hainbat ekimen antolatu dituzte azken egun hauetan, «sakabakari, lehenengo graduari eta gaixorik dauden presoen emateko. Presoek badituzte eskubideak, eta denboran zehar gehiegi luzatzen ari den konponbideari ekiteko eta kaleratze-prozesuak martxan jartzeko garaia da».

Gaur eta datozen egunetan ekintza gehiago egingo dira.

Hitzordua gaur, bi herritan

«Presoei gure eskaintza egin eta elkartzasuna adierazteko» Elkartasun-gunea irekiko da gaur Hernanin. Eguraldiaren arabera, Kaxkoan edo Tilosetan mezuak idatzi, dantza egin, abesti bat eskaini edota opariren bat egin ahal izango da 20:00ak arte, amaiera-ekitaldira arte.

Astigarragan, berriz, kontzentrazioa egingo da Joseba Barandiaran plazan 20:00etan, eta mariskada zozketatuko da.

Bihar, Donostiara

Bestalde, bihar 12:00etan manifestazioa egingo da Donostian, Bulebarretik aterata, *Atera biderra, presoak etxera!* lelopean, eta bertaratzeko deia luzatu dute.

Azkenik, urtarrilaren 11n Bilbon eta Baionan egingo diren manifestazio nazionalak joateko, autobusetan izena eman daiteke Hernanin eta Astigarragako Zipotzan. **K**

Euskaraldirako entitatea, aukeran

HERNANI EUSKARALDIA

Norbanakoek ez ezik, entitateek ere hartu ahal izango dute parte 2020ko Euskaraldian. Enpresa, kultur elkarte, kirol talde eta antzekoek parte hartzeko gonbidapena egin eta beraien eremuan hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamena egin nahi zaie. Hernanin, ariketa horretan parte hartzeko gonbidapena nori luzatu erabakitzeke inkesta jarri du martxan Euskara Ari Duk, eta urtarrilaren 12ra arte erantzun daiteke <https://labur.eus/euskara20> webgunean.

Beste 7 partidu, gaur eta bihar

GOIZUETA ESKU PILOTA

IV. Umore Ona Pilota Txapelketako partidu gehiago jokatuko dira gaur eta bihar, frontoian. Gaur, 17:30etan hasita ariko dira lau mailtako pilotariak. Umeetan, Seges eta Zurutuza, Larin eta Garmendiaren kontra, eta Aranberritarrak, NARBATE eta Sagarduren kontra; denak, etxeokak. Kimuetan, berriz, Aurrerako Zubillaga eta Alkorta, Umore Onako Salaberria eta Apezetxearen kontra. Haurretan, Elizazu eta Iturbe hernaniarrak Bortziritako Etxenike eta Madariagaren kontra. Eta 22 urtez azpikoetan, Bergarako Oteiza eta Otermin, Getariko Aristi eta Ilunpeko Salegiren aurka. Bihar, 10:30etan hasiko dira partiduak. Umetan, Aranberritarrak Legarreta eta Alsuaren aurka ariko dira, eta haurretan, Umore Onako Legarreta eta Elizegi, Añorgako Vertiz-Allenderen aurka.

Bilketa eta magoa ere bai, ludotekan

HERNANI LUDOTEKA

Gaur eta astelehenean ere ludotekarekin gozatzeko aukera izango da kiroldegian 10:00etatik 13:00etara, baina horrez gain, gaur 12:00etan magia ikuskizun berezia izango da. Bestalde, astelehenera arte Gipuzkoako Elikagai Bankurako jaki eta produktuak bilduko dira, eta parte hartzen dutenen artean bingo solidarioa egingo da astelehenean, herriko elkarteek emandako opariak zozketatzeko.

Hiru hernaniar, Sakanako finaletan bihar

HERNANI PALA

Sakanako Txapelketa ari dira jokatzen, lau palista hernaniar, eta horietatik hiruk lortu dute finalerako pasea: Amaia Irazustabarrenak, Azanzarekin batera, lehenengo mailan; eta bigarren mailan Ekhine Balerdik, Paula Gorostiagarekin, eta Olatz Zulaikak, Naroa Otxoarekin. Enara Maciciorrek, hain justu, Zulaikaren kontra jokatu zuen semifinala. Bihar izango dira finalak.

Uitzi semifinaletara, eta Lizeagak galdu

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

Semifinaletara pasea lortu zuen Unax Uitzi jubencil hernaniarrak, Gipuzkoako Txapelketaren bigarren mailan, Gorostidiri 22-5 irabazita. Eñaut Lizeaga astigartarrak, berriz, final laurdenetako partidua galdu zuen aurreneko mailan, Ezenaroren kontra (16-22).

Saskia, Gerardo Munduaterentzat

HERNANI FUTBOLA

Aurreko ostiralean zozketatu zuen saskia CD Hernanik, futboleko bazkideen artean; eta Gerardo Munduateri tokatu zitzaion.

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak, lan egingo luke tabernan, gaeuz. Deitu: 637 993 061 Sagardotegirako sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Euskaldunak.

Deitu: 625 256 777

Martxan dagoen alimentazio denda salgai, jubilariazogatik, Hernaniko Etxeberri auzoan.

Deitu: 647 886 950

Esperientziadun andreak, etxetan lan egiteko ikastaro sozio-sanitarioa duenak, lan egingo luke adinekoak zaintzen edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 7:00-9:00; 10:30-17:30. Deitu: 654 122 548

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

«Anti-demokraten bigarren eraso», EAJk

Batzoki berria berriro «erasotu» dutela-eta, «alderdi politiko guztien gaitzespena espero» du EAJk.

HERNANI EAJ-PNV

EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak, Andoni Amonarraiz Gomezek salatu duenez, «herri honetako anti-demokratek gure egoitza berria erasotzen duten bigarren aldia» da, eta «alderdi politiko guztien gaitzespena espero» du.

Egoitza berria Orkolaga auzoan dago, eta pintura gorri zikinduta agertu da. Amonarraizek azaldu du «horrelako ekintzek indartsuago egiten» di-



Orkolagako lokal berria pintura gorri zikinduta agertu da.

tuztela, eta «gero eta hernaniar gehiago direla gure lan-ildoan babesten dutenak. Deigarria da herri honetako anti-demokratik molestatzen dituela ikustea».

Era berean, gehitu du Zerbitzu Publikoetako zinegotziari

jakinarazi diotela margoketak garbitzeko eskatuz, «eta erantzuna azkarra izan da. Guk jarraitu egingo dugu gure herriagatik eta herriarentzat lanean, indarkeria mota bakar bat ere onartu gabe». **K**



70 bat emakume elkartu ziren Igor Muñoaren pausuak arretaz jarraitzeko.

Jaki goxo-goxoak Gabonetan, ikastaroa egin ondoren

HERNANI EMAKUMEEN ZENTROA Urteroko ohiturari eutsita, Hernaniko Emakumeen Zentro kulturalak Gabonetako jakiak prestatzeko sukaldaritza ikas-

taroa antolatu zuen Xalaparta elkartearen laguntzaz.

Hilaren 18an elkartu ziren 70 bat emakume, Tripontzi jatetxeko Igor Muñoa su-

kaldariaren pausuak arretaz jarraitzeko. Elkartetik eskerrak eman dizkiete parte-hartzaileei eta sukaldariari eta Xalaparta elkarteari.